

# DIRU-SARRERAK

Gure produktua, HD Silence, 150,95 eurotan salduko da. Prezioa lehorgailuak dituen osagarrien arabera erabaki da, baina lehorgailuak gehiago balio beharko lukeela uste arren, prezio egoki eta ekonomiko bat adoztu dugu.

Produktuaren prezioa salmentaren arabera aldatuko da, hau da, produktua gutxi saltzen bada prezioa igo egingo da etekinak ateratzeko, aldiz, salmenta handiak badaude, prezioan beherapena egongo da salmenta horiek mantentzeko. Hala ere, enpresak emaitza onak baditu, beste lehorgailu mota batzuk sortuko eta kaleratuko ditugu, beste diseinu batzuekin edo beste aukeraren batekin.

Proiektuari hasiera emateko, 20.000 euroko mailegua eskatuko diogu bankuari. 5 langile garenez, bakoitzak 4.000 euroko inbertsioa egingo du enpresarekin hasi ahal izateko. Enpresa bakoitzari diru kopuru jakin bat ordainduko diogu, esaterako, Parluxi 8.000 euro, JBLri 2.000 euro, Samsungi 4.000 euro eta geratzen diren 6.000 euroak behar dugun gutzitirako izango dira. Eroko ditugun beste beste gauza batzuk hauek izango dira:

- Mahaiak.
- Aulkiak.
- Ordenagailuak.
- Wifi-a.
- Kutxa erregistratzailea.
- Enpresei ordaintzeko.
- Lokala.
- Lokalaren argia.
- Lokalaren ura.
- Telefonoa.
- Desinfektatzailea.
- Garbiketa produktua.
- Erremintak.

Lehen aipatu dugun bezala hasieran, 20.000 euroekin, lan egin dugun enpreseekin ordainduko diegu (Parlux, Samsung, JBL), baina gure produktua salgai jartzen denean eta arrakasta duenean, lortzen dugun diruarekin enpresei ordaintzen jarraituko dugu eta aldi berean guksoldata bat jasoko dugu. Produktua salgai jarri eta gero, salmenta eta diru asko lortzen badugu, denda fisikoak ireki eta produktu berriak asmatuko ditugu, negozioa gutxinaka hazteko.

